



**bertsozale**  
**elkartea**

**2019ko memoria eta  
balantzea**

# Aurkibidea

<b>1. KUDEAKETA OROKORRA</b> .....	<b>3</b>
<b>2. KOMUNIKAZIOA</b> .....	<b>14</b>
<b>3. TRANSMISIOA</b> .....	<b>27</b>
<b>4. SUSTAPENA</b> .....	<b>39</b>
<b>5. LANKU KULTUR ZERBITZUAK</b> .....	<b>43</b>
<b>6. HEDAPENA</b> .....	<b>45</b>
<b>7. IKERKUNTZA</b> .....	<b>55</b>
<b>8. XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA</b> .....	<b>63</b>
<b>9. HERRIALDEETAKO EGITASMOAK</b> .....	<b>85</b>
9.1. Arabako Bertsozale Elkarte.....	85
9.2. Bertsularien Lagunak Elkarte .....	96
9.3. Bizkaiko Bertsozale Elkarte.....	106
9.4. Gipuzkoako Bertsozale Elkarte .....	110
9.5. Nafarroako Bertsozale Elkarte.....	116

# 1. KUDEAKETA OROKORRA

## 1.1. Koordinazioa

<b>Urteko egitasmoaren helburu nagusiak</b>	
<p><b>2018ko Gogoetaren ondorio eta helburuak atera eta 12 urtetarako plangintzaren oinarritzko dokumentua osatu</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- "Gero(r) mugitzen 2018-2030" dokumentua</li><li>- 4 urtetako ziklotan plangintza landu Sailez sail</li><li>- Gogoetaren memoria orokorra osatu eta gizarteratu: partehartzaileei, elkarlan eragileei, gizarteari orokorrean</li></ul> <p><b>Gogoetan zehaztutako helburuei erantzuteko Egituraren inguruko Gogoeta gauzatu eta Egitura berrantolatu</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Feminismoa saila egituratu</li><li>- Egituraren inguruko Gogoeta diseinatu eta gauzatu</li><li>- Gogoetaren ondoren Egitura berrantolatu</li><li>- Egitura finantziario orokorraren analisia eta berrantolaketa</li><li>- Lehendakaritza taldearen funtzionamentua: Zuzendaritza-Lehendakaritza harremana...</li></ul> <p><b>Koordinatzaile orokorraren erreleboa</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Koordinatzaile berriaren perfila finkatu</li><li>- Erreleboa prozedura diseinatu eta gauzatu</li><li>- Trasea diseinatu eta gauzatu</li></ul> <p><b>EHBEtik kudeatzen diren tresna bateratuen jarraipena: XDZ, HH, Bertsoa.es, Lanku,</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- <b>Lanku:</b><ul style="list-style-type: none"><li>o Bertsolaritzak dituen zerbitzu beharrei erantzun enpresaren bideragarritasuna sendotuz.</li><li>o Gogoetaren ondorioak Lankuren egitekotan txertatu</li></ul></li></ul>	<p><b>Gogoetako helburuak eta 12 urteko plangintza</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- <i>Gerora mugitzen</i> dokumentua osatu da eta Elkarteko sail eta herrialdeetan sozializatu da udaberrian.</li><li>- Sail bakoitzak gogoetako ondorioekin lan lerroen dokumentu bat osatu du, eta lau urteko ziklo bakoitzaren lehentasunak onartu dira zuzendaritza batzordean.</li><li>- Elkarteko bazkideei gogoetaren ondorioak sozializatzeko euskarri prestatzen hasi gara eta 2020. urtean publikatuko da.</li></ul> <p><b>Egituraren gogoeta diseinatu dugu</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Feminismo sailak landu beharreko gaiak identifikatu dira. Taldekideak biltzea falta da, 2020. urtean zehar egingo da.</li><li>- Egituraren gogoeta diseinatu da, ko-diseinu taldea sortu da horretarako (12 bilerak) eta Farapi enpresaren aholkularitza izan dugu lan honetarako.</li><li>- Egituraren gogoeta 2020. urtean egingo denez ondorioak beranduago aplikatuko dira.</li><li>- Egitura finantziarioaren azterketa ere 2020. urtean abiatuko da.</li><li>- Lehendakaritzak zuzendaritza bilerak prestatzen eta antolatzen ditu, akuilu lana egingo du zuzendaritzan.</li></ul>

<p>- <b>XDZ:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>o Bertsolaritzaren behatoki dinamikoa izaten jarraitu.</li> <li>o Mintzola Fundazioaren egitasmo barruan izan dezakeen garapena aztertu eta landu.</li> </ul> <p><b>Administrazioko lantaldea Sail modura egituratu:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Administrazio Batzorde orokorraren funtzionamentua</li> <li>▪ EHBE-Mintzola Administrari lantaldea</li> <li>▪ Administraziotik heldu beharreko lehentasunezko lanak: <ul style="list-style-type: none"> <li>o Datuen babeserako legea aplikatu</li> <li>o Elkartek Interes orokorreko Elkarte izendapena lortzeko pausuak eman.</li> <li>o Langileen Eskubide eta Betebeharren (LEB) araudia berri eta aplikatu.</li> </ul> </li> </ul> <p><b>Mintzola Ahozko Lantegia:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- EHBEren Mintzolako organigrama berrantolatu: Lehendakaritza, Patronoak; Zuzendaritza; Koordinazioa</li> <li>- Etorkizunari begirako Gogoeta gauzatu Patronatuarekin batera</li> <li>- Mintzola Fundazioaren egitasmoa garatu <ul style="list-style-type: none"> <li>o Bertsolaritzaren Ikertegia</li> <li>o Ahozko Kultur sorkuntzen Elkargunea</li> <li>o Kulturarte: Ahozko Inprobisazio kantatuta</li> </ul> </li> <li>- 2019rako finantziarioa landu eta bermatu <ul style="list-style-type: none"> <li>o EHBE-Mintzola aurrekontu oreka bermatu</li> <li>o Mintzola BEZakk eragindako proiektua garestitzea konpondu</li> </ul> </li> </ul> <p><b>Finantziarioa:</b> Proiektua garatzeko finkatutako estrukturak dituen behar ekonomikoek orekatu (finantziario publikoa eta autofinantzaketa).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Administrazio publikoarekin eta entitate pribatuen elkarlanak eta harremanak</b></li> <li>- <b>Gogoetaren ondorioen aurkezpen erronda</b></li> <li>-</li> </ul> <p><b>Oinarri soziala, bazkidetza, mantentzeko eta zabaltzeko politikak diseinatu eta garatu.</b></p>	<p><b>Koordinatzailearen erreleboa gauzatu da</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bi koordinatzailearen aldeko hautua egin da zuzendaritzan, pertsona bakarra ezin delako dena iritsi. Proiektuaren handitasunak eta bertsolaritzaren aniztasunak eraman gaitu horretara.</li> <li>- Idoia Trenor eta Jon Agirresarobe hautatu dira koordinatzaile: bata, lehiaketa bidez, bigarrena lan-taldearen baitan aukeratuta.</li> <li>- Ekainean eta uztailan elkarrekin egin dute lan hiru koordinatzaileak gaien transbasea ziurtatzeko.</li> </ul> <p><b>Herramina bateratuen jarraipena ohiko terminoetan egin da.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanku enpresaren lanetan txertatu dira gogoetaren ondorioak.</li> <li>- Xenpelar Dokumentazio Zentroan izan diren langile aldaketak kudeatu dira lantaldearekin batera. Administrazio lan taldea sail modura egituratu da: talde bakarrak erantzuten diete Bertsozale Elkarteko eta Mintzolako beharrei, eta lan banaketa gauzatzen ari da. Datuen babeserako legea aplikatzeko pausoa eman dira. Interes orokorreko elkarte izendapena lortzeko informazioa lortu da eta 2020. Urtean gauzatuko da tramitea. LEB dokumentua ez da berri.</li> </ul> <p><b>Mintzola Lantegia:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ez da organigrama berri.</li> <li>- Egitasmoari buruzko gogoeta 2020 urtean berriko da. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera prestatuko da gogoeta.</li> <li>- Egitasmoa esan bezala garatu da:</li> <li>- Bertsolaritzaren ikertegian 7 doktore tesi amaituko</li> </ul>
---	--

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bazkide kuotaren inguruko hausnarketa egin.</li> </ul> <p><b>Bestelakoak?</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsolaritza Ondare ez materialaren izendapena</li> </ul>	<p>dira aurki, GRAL saria eta bi ikerketa beka atera dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahozko Kultur sorkuntzen egitasmoan berritzaileak dira "Sormen baten" eta "Ahostegunak" proiektuak.</li> <li>- Ez da lortu 2019. Urteko aurrekontua orekatzerik: Mintzola Fundazioaren defizita Bertsozale Elkarteak asumitu du.</li> </ul> <p><b>Finantziazioan ez da aurrerabide handirik egin</b>  Administrazio publikoarekin eta entitate pribatuekin elkarlanak jarraipena izan dute.  Eragileei gogoetaren ondorioak aurkezteko erronda 2020. urtean egingo da.</p> <p><b>Bazkidetza eta oinarri soziala bere horretan</b>  Bazkide kuotaren inguruko hausnarketa egin da eta bere horretan mantentzea aurreikusi da.</p> <p><b>Bestelakoak</b>  Bertsolaritza Ondare izenadapenaren aurretik beharrezko zen EAeko Ondare Lege berria onartzea eta Elkartetik lege berriaren garrantzia nabarmendu dugu legea onartu denean. 2021. urtean izendatuko da bertsolaritza ondare materialgabeko.</p>
--	---

<p><b>Euskal Herriko Bertsozale Elkartea eta herrialdeetako Bertsozale Elkarteen arteko koordinazioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Sei Elkarte proiektu bateratuan + 3 egitura ezberdin</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>o Proiektuaren errealitate guztiak aintzat hartu eta orekak zaindu</li> </ul> </li> <li>- <b>Sailen arteko Koordinazioa</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>o Sail guztien Egitasmoak bideratzen lagundu eta Sailen arteko koordinazioa egin</li> <li>o Lantalde profesional eta borondatezkoen arteko elkarlanerako zubiak finkatu (bakoitzaren zereginak, erritmoak, osagarritasunak, zailtasunak,...) eta funtzionamendu modu egokienak bilatu.</li> </ul> </li> </ul>	<p><b>Euskal Herriko eta lurraldeetako bertsozale elkarteen arteko koordinazioa</b></p> <p>Iparraldean, Araban eta Nafarroan izandako zenbait erabakitan parte hartu da.</p> <p>Kudeaketa eta zuzendaritza batzordeak baliatu dira egitasmoa eta egiturak koordinatzeko.</p> <p>Gogoetan aztertu da, berariaz, gai sorta hau:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>o Borondatezko eta lagileen uztarketa</li> <li>o Herrialdeetako proiektuen uztarketa</li> <li>o Batasun finantzarioa posibleak</li> </ul>
<p><b>Sailez sail, ohiko ardura eta egitasmoak bete, hauetako bakoitzaren kalitatea hobetzeko ahalegina eginez:</b></p> <p>Ikusi sail bakoitzaren egitasmoa</p>	

## 1.2. Administrarritza

<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
<b>Administrazio Saila egituratu Batzorde moduan</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarre edo egitura ezberdinetan (Lanku, Mintzola,...) lanean ari diren administrariekin Administrazio Saila egituratu.</li> <li>- Helburuak eta funtzionamentua zehaztu.</li> <li>- Koordinatu eta jarraipena egin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Administrazio Saila batzorde moduan egituratu da.</li> <li>- Helburuak eta funtzionamendua zehatu da. Batzordea hileroko bilkurak egitea erabaki zen.</li> </ul>
<b>Finantza gestioa</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurrekontua orekatu eta exekuzioaren berri zuzendaritzari eman.</li> <li>- Kontabilitatea eguneratua eraman</li> <li>- Diruzaintzaren jarraipena egin</li> <li>- Inbentarioa eguneratu</li> <li>- Herrialde guztien kontuak eguneratu.</li> <li>- Ogasuneko izapideak bete.</li> <li>- Irizpide bateratuak landu eta zaindu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Diruzaina eta Koordinatzailearekin elkarlan estuan jardun. Koordinazio bilkura hileroko. <ul style="list-style-type: none"> <li>o Aurrekontuaren egitura erabaki eta jarraipena egin</li> <li>o Laguntza eskariak eta beren zuriketa garaiz egiteko modua egin</li> <li>o Sarrera irteeren gaineko kontrola eraman; ordainketa epeak kudeatu jarritako irizpideen baitan.</li> <li>o Diruzaintzako kontuak adi zaindu, sarrerak eta irteerak planifikatuz eta diruzaintza plana prestatuz.</li> </ul> </li> <li>- Arauzko kontabilitatea eraman, BE osatzen duten elkarre guztietan.</li> <li>- Urteko kontuak eta memoria prestatu.</li> <li>- Inbentarioa eguneratu, urtean behin.</li> <li>- Finantza gaietan ezarritako irizpideak bete daitezzen bermatu.</li> <li>- Herrialdeetako diruzainekin koordinazio bilkurak egin: urtean bi.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Diruzain eta koordinatzailearekin elkarlan estua egon da nahiz eta hileroko ez den bilerarik egon.</li> <li>- Aurrekontuan aurreko urteetako egitura berdina mantendu da eta jarraipena egin da, kontuak egunera eraman dira.</li> <li>- Diruzaintza plana ez da prestatu baina diruzaintzaren jarraipena egin da.</li> <li>- Elkarre guztietako arauzko kontabilitatea eraman da eta finantza irizpideen arabera egin da.</li> <li>- Urteko kontu, memoria, inbentarioa egin dira finantza irizpideak zainduz.</li> <li>- Herrialdeetako diruzainekin 2 bilera egin dira</li> </ul>
<b>Lan kontratuak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan kontratuen gestioa eta jarraipena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritza Batzordeak erabakitako lan hitzarmenak egin eta baldintzak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritzak eskatutako lan hitzarmenak, agindutako baldintzetan</li> </ul>

	zaindu. - Nominen jarraipena egin. - Gaixoaldi bajak-altak bideratu.	egin dira. - Nominen jarraipena egin da. - Gaixoaldi bajak eta altak bere garaian bideratu dira.
<b>Bazkide errolda</b>	- Bazkideen alta eta bajak erroldatu. - Eskatzen diren informeak egin. - Bazkide kuotaren inguruko gogoetan parte hartu.	- Urtean zehar izan diren bazkideen altak eta bajak garaiz egin dira, bazkide berriei txartela bidali zaie. - Eskatutako informeak egin dira.



<p><b>Ohiko egitekoak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Telefono deiak hartu eta banatu.</li> <li>- Postaz arduratu: egunerokoak igorri eta jasotakoak banatu.</li> <li>- Koordinatzaile eta Saisetako eragileei behar duten laguntza eskaini: informazioa, laguntza eskariak, zuriaketak e.a.</li> <li>- Bitarteko teknologikoen funtzionamenduaren ardura eraman.</li> <li>- Artxibo informatikoen ziurtasun kopiak egin.</li> <li>- Elkarteko artxibo administratiboa antolatu eta egunera eraman.</li> <li>- Ibilgetua Materialaren inbentarioa egunera eraman.</li> <li>- Tresneriaren sarrera-irteeren kontrola eraman.</li> <li>- Biltegiko izakinen mugimenduaren kontrola eraman: <ul style="list-style-type: none"> <li>o Bulegoko material suntsigarria: aurreikuspenak, erosketak...</li> <li>o Salmentarako materialaren mugimenduak</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Telefono deien banaketa, posta banaketa, egin da.</li> <li>- Koordinatzaile, Saisetako eragile eta Herraldeetako Koordinatzaileei laguntza eskaini zaie.</li> <li>- Bitarteko teknologikoez arduratu da, sortutako arazoak bideratuz.</li> <li>- Artxibo informatikoaren ziurtasun kopia egin da egunero.</li> <li>- Elkarteko artxibo administratiboaren antolaketa zaindu da; eguneratu beharrean geratu da.</li> <li>- Ibilgetu materialaren inbentarioa eguneratu da.</li> <li>- Biltegiko edukia kontrolatu da beharrezko suntsigarri materialaren erosketak bideratuz eta Salmentako materialaren mugimendua zainduz.</li> </ul>
-------------------------------	---	---

### 1.3. Feminismoa

<b>Urterako helburuak</b>	<b>Ebaluazioa</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2018ko Gogoetak feminismoan planteatutako ondorioak landu Elkartean.</li> <li>- Zer egitura eman, landu Elkartean.</li> <li>- Egitasmoa gauzatzeko finantziazioa lortu.</li> <li>- Ahalduntze bertso-eskola gai-jartzaileei zabaltzeko pausoa eman.</li> <li>- Gizon bertsolarien bertso-eskola feminista sortu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2018ko Gogoetak feminismoan planteatutako ondorioak bildu ditugu eta sail bakoitzari dagozkionak jakinarazi dizkiogu.</li> <li>- Elkartean zer egitura eman lantzen ari gara. Genero Taldearen zikloa itxi dugu. Feminismo eragiletzari koordinatzaileetako batek helduko dio eta transmisioa egiten ari gara.</li> <li>- Ahalduntze Bertso-eskolaren V. edizioa abiatu dugu, gai-jartzaileei zabalik.</li> <li>- Gizon bertsolarien bertso-eskola feminista sortu dugu.</li> </ul>

<b>SAILAREN KUDEAKETA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
<b>Feminismoari zer egitura eman Elkartean, landu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2018ko Gogoetaren ondotik, eta 2019an Egituraz egingo den gogoetari lotuta, Elkartean feminismoari zer egitura eman, landu. Horretarako prozesua planifikatu eta gauzatu, dagozkien sailekin/kideekin (genero taldeaz, Lehendakaritza taldeaz, eta koordinazio batzordeaz).</li> <li>- Egitura berria sortu eta funtzionamendua abiatu.</li> <li>- Egitura horren baitan, eragiletza dedikazioak eta ardurak zehaztu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkartean zer egitura eman lantzen ari gara.</li> <li>- Genero Taldearen zikloa itxi dugu.</li> <li>- Feminismo eragiletzari koordinatzaileetako batek heldu dio.</li> <li>- Orain arte genero eragiletza izan duen Ixiarrek, 2019an Ahalduntze Bertso-eskolaren ardura soilik hartu du, eta ikasturtea amaitzean erabat utziko du.</li> <li>- Gizonen Bertso-eskola Feministaren ardura sustapen eragileak hartu du.</li> </ul>
<b>Genero taldea</b>	- 2018ko Gogoetak feminismoan eman	- 2018ko Gogoetaren emaitzak landu

<p>2018ko Gogoetaren emaitzak landu. Elkarteko egitura berrian izango duen lekua argitu. 2019ko egitasmoetan partaidetza indartu</p>	<p>dituen emaitzak landu genero taldean.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 2019an Egituraz egingo den gogoetan, genero taldea ere partaide egin.</li> <li>- Elkarteko egitura berriaren baitan kokatu genero taldea.</li> <li>- Urteko egitasmo zehatzean zuzeneko parte hartzea izan dezaten aukerak zabaldu: gizonezkoen bertso-eskola feminista sortzeko bultzada eman dezan kide bakoitzak.</li> <li>- Kideen arteko komunikazioa bermatu, emailez zein telefonoz.</li> <li>- Giro atsegina eta bizia zaindu; garapen pertsonala eta ekiteko grina ezaugarri dituen giroa zaindu.</li> </ul>	<p>ditugu Genero Taldean.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkartean feminismoa alorrari heltzeko egitura sendoagoa behar dugula ondorioztatu dugu. Eta Genero Taldearen zikloa itxiztat eman dugu.</li> <li>- Genero Taldeko partaideei egitasmoetan jarraitzeko aukera eman diegu. Gizonezkoen Bertso-eskola sortzera bideratu dute partaideek euren aportazioa.</li> </ul>
<p><b>Ekimenak gauzatzeko finantzabideak egonkortzea</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakunderen hitzarmenari iraunkortasuna eman.</li> <li>- 2019ko egitasmoak gauzatzeko finantziazioa lortu.</li> <li>- Feminismo eragiletza postu erdi batentzat finantziazioa lortzen saiatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakunderen hitzarmenari jarraipena eman diogu.</li> <li>- Ez dugu finantzabide berririk lortu.</li> </ul>

### **BERTSOZALE ELKARTEAREN JARDUNEAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA**

<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
<p><b>2018ko Gogoetak feminismoan jarritako ondorioak landu sail eta herrialdeekin</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2018ko Gogoetaren emaitzak jaso, idatzi. Dokumentua landu.</li> <li>- Sail eta herrialde bakoitzari zertan eragiten dion landu, bakoitzarekin. Sail bakoitzak bere ekimenen eta aldaketaren ardura hartu dezan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2018ko Gogoetaren emaitzetan Feminismoari dagokion atala osatu dugu.</li> <li>- Sail bakoitzak feminismoan landu beharrekoak ere zehaztu ditugu.</li> <li>- Datozen 12 urteetan garatzeko lan</li> </ul>

	<p>eragin.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Datozen 12 urteetan garatzeko plana idatzi.</li> </ul>	ildoak idatzi ditugu.
<b>Berdintasun plana</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsozale elkartearen berdintasun planerako testuingurua aztertzea.</li> <li>- Berdintasun plana egiteko lehen urratsak ematea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irailean bi saio egin dira: borondatez aritzen diren emakumeekin (22) eta soldatapeko langile guztiekin (69) Saio horiek Farpi kooperatibako kideekin egin dira eta berdintasun plana egin aurreko abiapuntua markatzeko baliatu dira.</li> <li>- Berdintasun plana nola egingo den zehaztu da: 2021ean egingo da elkartean eta 2020a baliatuko da berdintasun plana egiteko egitura osatzen joateko.</li> </ul>
<b>Eraso matxistak kudeatzeko protokoloa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eraso matxistak ematen direnen erantzuteko irizpide adostuak izatea.</li> <li>- Parte hartze prozesu baten bidez ahalik eta tresna adostuena osatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emagin elkartekoekin egin da prozesua. Herrialde bakoitzean bi saio egin dira eta Villabonan beste bi. Guztira 70 pertsona inguruk hartu dute parte saio guztietan.</li> <li>- Lantalde bat sortu da EH mailan erasoak kudeatzeko. Herrialde bakoitzean ere kudeaketa lantalde horretan parte hartuko duten ordezkariak izendatu dira.</li> </ul>

<b>FORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
<b>Emakume bertsolari eta gai-jartzaileentzat Ahalduentze Bertso-eskola</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2018/2019 ikasturteari jarraipena egin eta antolakuntza lanak bideratu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2018/2019 ikasturtea arrakastaz gauzatu dugu.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasturtearen balorazioa egin partaide izan diren emakume bertsolariekin eta irakasleekin.</li> <li>- 2019/2020 ikasturtean bertso-eskolan gai-jartzaile emakumeak sartzeko diseinua egin, arduradun izango diren kideekin (gai-jartzaileekin), eta sustapen eragileaz koordinatuta.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasturtearen balorazioa eginda, 2019/2020ko berrikuntzak zehaztu ditugu.</li> <li>- 2019/2020 ikasturtean bertso-eskola gai-jartzaileei ere zabaldu diegu. Inoizko parte-hartze handiena lortu dugu (7 gai-jartzaile eta 24 bertsolari). Eta antolakuntza taldea berriro dugu (3 gai-jartzaile/dinamizatzaile eta antolatzaile 1).</li> </ul>
<b>Gizon bertsolarientzat Bertso-eskola Feminista</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizonetako bertsolariek genero ikuspegia lantzeko bertso-eskola sortu. Diseinua eta prozesuan ari diren arduradunekin (sustapen eragilearekin, gai-jartzaileekin) koordinatu, alboan egon.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizonentzat Bertso-eskola Feminista sortu dugu. 13 bertsolarik eman dute izena. Sustapen eragileak hartu du antolakuntza ardura. Bi bertso-eskolak (Ahduntze eta Gizonena) koordinatu ditugu.</li> </ul>

<b>KOMUNIKAZIOA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
<b>Barne komunikazioa landu bereziki, urtean zehar antolatzen ditugun ekimenen berri emanez</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahduntze Bertso-eskolaren eta Bertso-eskola Feministaren berri zabaldu, bertsolaritzako agente aktibo guztiengana (barne eta kanpoko taldeak) informazioa helarazteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahduntze Bertso-eskolaren eta Gizonen Bertso-eskola Feministaren berri zabaldu diegu, bertsolari eta gai-jartzaileei, parte hartzera gonbidatuz.</li> </ul>

## 2. KOMUNIKAZIOA

Urterako helburuak	Ebaluazioa
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazio sailaren jarduna herrialdeekiko nahiz sailekiko zehar lerroan egituratu, eremuak zehaztuz eta sinergiak aprobetxatuz.</li> <li>- Eragile baten (100 %), komunikazio teknikari baten (100 %), eta erredaktore baten (% 50) dedikazio jarraituarekin komunikazio saila dinamizatu. Herrialdeetako komunikazio arduradunen bitartez elkarteen arteko etengabeko komunikazio fluxua bermatu. Komunikazioari lotuta lanean ari diren elkarteko profesionalen arteko komunikazioa bultzatu. Adituen eta borondatezko kideen parte-hartzea eragin.</li> <li>- Elkarrearen komunikazio politika berrikusten eta garatzen jarraitu. Elkarteko kideak formatu, diskurtso propio eta koherentea zainduz.</li> <li>- Urtean zehar aurrera emango diren egitasmoen komunikazio planak diseinatu eta, urtebetez, hauek modu berezian aztertu, praktika onen gida osatuz. Elkarteko komunikazio politika aintzat hartzen dela bermatu.</li> <li>- Komunikazio erreminten plan estrategikoa etengabe berrikusi eta garatu.</li> <li>- Hedabide eta gizarte mailan elkarrearen duen presentzia mantendu eta areagotu.</li> <li>- Barne komunikazioan ahalegin berezia egin: gogoeta estrategikoa dela eta, aldizkari zein ikus-entzunezko berezia gauzatu. Gogoeta estrategikoaren diseinuan parte hartu, eta komunikazioa landu eta garatu.</li> <li>- Lankuko diseinatzailearen diseinu lanen koordinazioa hobetu.</li> <li>- Internet sarea berrikusten jarraitu: LinkedIn-era jauzia eman, sektoreari buruzko albisteak bistaraziz. Gainontzeko sare</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazio sailaren jarduna sailekiko eta herrialdeekiko zehar lerroan egituratu da, sinergiak aprobetxatuz eta lan eremuak zehazten jarraituz.</li> <li>- Sailak eragile baten eta komunikazio teknikari baten %100eko dedikazio jarraitua izan du. Berripaperaren erredakzioan, %10ko dedikazioarekin, beste kide bat aritu da. Bertsoa.eus, Bertsoeskola.eus eta Bertsoikasgela.eus atarietako komunikazioari lotutako atalak (albisteak...) Transmisio Saileko eta Hedapen Saileko dedikazioarekin osatu dira.</li> <li>- Herrialdeetako komunikazio arduradunekin etengabeko komunikazio fluxua izan da, elkarteko komunikazio alorreko profesionalen arteko komunikazioa bultzatu da, eta adituen eta borondatezko kideen parte hartzea eragin da.</li> <li>- Elkarrearen komunikazio politika garatzen eta finkatzen jarraitu da, diskurtso propio eta koherentea zainduz eta elkarteko kideak formatuz. Harreman publikoen gaia aztertu da bereziki.</li> <li>- Urtean zehar aurrera eraman diren egitasmoen komunikazio planak diseinatu dira.</li> <li>- Komunikazio erreminten plan estrategikoa berrikusi da.</li> <li>- Elkarrearen hedabideetan eta gizarte mailan duen presentzia mantendu eta areagotu da.</li> <li>- Barne komunikazioari dagokionez ahalegin berezia egin da: gogoeta estrategikoaren komunikaziorako euskarriak (aldizkaria + bideoa) gauzatzeko diseinua landu da eta garapenari ekin zaio. 2020an gauzatuko den parte-hartze prozesuaren diseinu fasean parte hartu da, eta honen</li> </ul>

<p>sozialak eragin, atarietako gune estatikoak eguneratu eta erdal guneei jarraipena eman. Bertsoeskola.eus atari berriaren irudia eta komunikazio estrategia landu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Publizitate tarteen jarraipena egin: bannerrak (Bertsoa.eus, Bertsosarrerak.eus...)</li> <li>- Komunikaziorako estilo liburua garatu (Bertsoa.eus, Bertsozale.eus, Mintzola.eus, BertsoZalea berripapera...) eta webguneen editore taldearen bilerak aktibatu.</li> <li>- Komunikazio sailaren aurrekontuaren bolumen osoa bistarazi.</li> </ul>	<p>gizarteratzea gauzatzeko euskarriak sortu dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lankuko diseinatzailearen diseinu lanen koordinazioa bideratu da.</li> <li>- LinkedIn-era jauzia eman da sektoreari buruzko albisteak bistaratzuz. Gainontzeko sare sozialetan eragin dugu, web atarietan etengabeko albiste jarria bermatu da eta gune estatikoak zein erdarazko guneak eguneratu dira. Bertsoeskola.eus atari berriaren komunikazio ikuspegia aztertu da eta diseinua estetikoak landu da.</li> <li>- Publizitate tarteen jarraipena egin da (Bertsoa.eus, Bertsosarrerak.eus...)</li> <li>- Ezin izan dugu editore taldea aktibatu eta komunikaziorako estilo liburua garatu.</li> <li>- Ez dugu komunikazio sailaren bolumen osoa bistaratu. Proiektuka landu da.</li> </ul>
--	--

<b>SAILAREN KUDEAKETA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Funtzionamendua eta Antolaketa</li> <li>- Egitasmoa zehaztu eta beronen garapena zaindu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2019ko egitasmoa zehaztu eta Zuzendaritza batzordeari proposatu.</li> <li>- Sailaren aurrekontua kudeatu (Bertsozale Elkarte eta Mintzola Ahozko Lantegia)</li> <li>- Urteko balorazioa eta memoria aurkeztu Zuzendaritza Batzordeari urte amaieran.</li> <li>- Sailaren funtzionamendua aktibatu. Bileren gai ordenak, aktak eta erregulartasuna bermatu.</li> <li>- Herrialde guztietako komunikazio arduradunen arteko eta elkarten arteko komunikazio fluxua bermatu.</li> <li>- Komunikazioan ari diren elkarteko profesionalen arteko komunikazioa eragin.</li> <li>- Adituen parte-hartzea eragin.</li> <li>- Borondatezko kideen parte-hartzea eragin.</li> <li>- Egitasmoen eta proiektuen lanketa bestelako bitartekoen bidez aurreratu: posta elektronikoa, barne foroak...</li> <li>- Koordinazio batzordean parte hartu.</li> <li>- Kudeaketa batzordean parte hartu.</li> <li>- Zuzendaritza batzordean parte hartu.</li> <li>- Egitasmo zehatzetarako sortutako batzordeetan parte hartu: gogoeta antolatze taldean.</li> <li>- Taldearen formazioa ahalbidetuko duten ikastaro, jardunaldi eta mahai-inguruetan parte hartu.</li> <li>- Diseinu lanetarako dedikazioa eta</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitasmoa zehaztu eta Zuzendaritza batzordeari proposatu zaio.</li> <li>- Aurrekontua prestatu eta jarraipena egin da.</li> <li>- Urteko balorazioa eta memoria aurkeztu dira.</li> <li>- Sailaren funtzionamendua aktibatu da. Bileren gai ordenak, aktak eta erregulartasuna bermatu da. Komunikazio batzordearen 9 bilera egin dira.</li> <li>- Herrialde guztietako komunikazio arduradunen arteko eta elkarten arteko komunikazio fluxua bermatu da.</li> <li>- Komunikazioan alorrean ari diren elkarteko profesionalen arteko komunikazioa eragin da.</li> <li>- Adituen eta borondatezko kideen parte-hartzea eragin da.</li> <li>- Egitasmoen eta proiektuen lanketa bestelako bitartekoen bidez aurreratu da: posta elektronikoa...</li> <li>- Hainbat batzordeetan parte hartu da: Koordinazioa, Kudeaketa, Zuzendaritza, Parte-hartze prozesuaren ko-diseinuaren lan taldean...</li> <li>- Formazio saioak: <ul style="list-style-type: none"> <li>o 2019-02-27 ApplInventor. Azkue Fundazioa.</li> <li>o 2019-06-19 Periodismo, privacidad y derechos digitales. UPV/EHU. Uda Ikastaroak.</li> </ul> </li> </ul>
--	---	--



	<p>diseinu lanen koordinazioa hobetu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ 2019-06-21 Kanbanize. Organiza y gestiona el trabajo de tu equipo. Euskadi+innova</li> <li>○ 2019-07-04. Ikus-entzunezko sortzaileentzat Pitchinga. Masterclass-a. 2deo. Tabakalera.</li> <li>○ 2019-07-08/09 Euskarazko komunikabideen aukerak eta erronkak: proposamen bat lantzeko unea. UEU.</li> <li>○ 2019-08-1/14 Lehen Sorospenak. DYA.</li> <li>○ 2019-09-16 Kinemaster. Edición de video con smartphone. Euskadi+innova.</li> <li>○ Hizkuntzak: Ingelesa, frantsesa...</li> </ul>
--	---	--

<b>Sailaren jardun eremua definitu.</b>	Komunikazio taldearen jarduna herrialdeekiko nahiz sailekiko zehar lerroan egituratu, eremuak zehaztuz eta sinergiak aprobetxatuz.	Sailaren egitekoa herrialde eta beste sailekin zehar lerroan egituratu da, eremuak zehaztuz eta sinergiak aprobetxatuz.
---	--	---

<b>KOMUNIKAZIO POLITIKA OROKORRA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
<p><b>Elkartearen komunikazio politika berrikusten eta finkatzen jarraitu eta elkarteko kideak formatu.</b>  <b>Komunikazio korporatiboa</b>            Elkartearen balore eta estiloa kontutan hartuko duen diskurtso propio eta koherentea bermatu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkartearen jardunean elkartearen balioetan eta estiloan oinarritutako komunikazio politikaren erabilera bermatu.</li> <li>- Gizarteko agente egituratuekiko (elkarte, erakunde, administrazioa...) eta hedabideekiko komunikazio eta harreman politika garatu.</li> <li>- Komunikazio politika modu jarraituan berrikusi dokumentu guztiak karpeta berean jasoz eta elkarteko kideak formatuz.</li> <li>- Komunikazio politikaren baitan hainbat atal berrikusi edo garatu:</li> <li>- Komunikazio planak aztertu eta praktika onen gida osatu.</li> <li>- Komunikaziorako estilo liburua garatu eta partekatu, formazioa eman-jasoz. Aintzat hartuz: Bertsozalea.eus, Mintzola.eus, Bdb.bertsozale.eus, bertsosarrerak.eus, Bertsoa.eus, bertsoikasgela.eus, bertsoeskola.eus,</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkartearen jardunean elkartearen balioetan eta estiloan oinarritutako komunikazio politikaren erabilera zaindu da.</li> <li>- Gizarteko agente egituratuekiko eta hedabideekiko komunikazioa eta harremana zaindu da.</li> <li>- Komunikazio politika modu jarraituan berrikusi da elkarteko kideak formatuz.</li> <li>- Komunikazio planak aztertu dira, harreman publikoaren gaian arreta jarri.</li> <li>- Ez da izan estilo liburua garatzeko tarterik.</li> <li>- LinkedIn-era jauzia eman da sektoreari buruzko albisteak publikatuz.</li> <li>- Gainontzeko sare sozialetan eragiten jarraitu da.</li> <li>- Bertsoa.eus eta Bertsosarrerak.eus publizitate tartean jarraipena egin da.</li> <li>- YouTubeko strategiaren errepasoa egiterik ez dugu izan.</li> </ul>

	<p>Lanku.eus, Bertsozalea berripapera eta sare sozialak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Internet sarean jauziak eman: YouTube, Facebook, Twitter, Instagram.. lanean jarraitu eta LinkedIn-en sektoreari buruzko albisteak publikatu</li> <li>- Bertsoa.eus eta bertsosarrerak.eus publizitate tarteak aktibatu eta jarraipena egin...</li> <li>- YouTube, estrategiaren errepassoa.</li> </ul>	
--	---	--

<b>BARNE ETA KANPO KOMUNIKAZIO PLANAK</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
<p><b>Barne komunikazioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritza, sail, lantalde desberdinetako kide eta bazkideen arteko komunikazioa bermatu.</li> <li>- Hartzaile multzo honi egokitutako mezu eta erremintak garatu.</li> <li>- Informazioa lehenetsunez helarazi elkartekideei.</li> </ul>	<p>Sail eta herrialdeen arteko komunikazioa arretaz zaindu.</p> <p><b>Barne buletinak:</b>  <b>Bertsozale Elkarteko barne buletina:</b>  <b>Zuzendaritza, Sail eta lan-talde desberdinetako kideei zuzendurik</b> Barne buletina hamabostean behin helarazi sail eta herrialdeetako informazioarekin.  <b>Mintzola Ahozko Lantegiko barne buletina:</b> Mintzolako patronatu kideei, EHBeko zuzendaritza kideei, ikerlariei... hilean behin helarazi..  <b>Ekitaldien egutegia datu-basea elikatu</b> Elkarteko kideek egitasmoei buruzko bisio osoa izan dezaten. Asteko ekitaldien berri igorri elkarteko kideei.  <b>Bazkideei zuzendurik:</b>  <ul style="list-style-type: none"> <li>- BertsoZalea berripaperaren 10 ale</li> </ul> </p>	<p>Sail eta herrialdeen arteko komunikazioa arretaz zaindu da.</p> <p><b>Barne buletinak:</b>  <b>Bertsozale Elkarteko barne buletina:</b> Zuzendaritza, sail eta lan talde desberdinetako kideei hamabostean behin helarazi zaie sailetako eta herrialdeetako informazioa. 22 buletin prestatu eta hedatu dira.  <b>Mintzola Ahozko Lantegiko barne buletina:</b> Mintzolako patronatu kideei, EHBeko zuzendaritza kideei, ikerlariei... hilean behin helarazi zaie (uztailean eta abuztuan izan ezik). Guztira 10 buletin prestatu eta helarazi dira.  <b>Ekitaldien egutegia datu-basea elikatu da.</b> Elkarteko kideek egitasmoei buruzko bisio osoa izan asmoz. Asteko ekitaldien berri</p>

	<p>argitaratu, sail eta herrialdeekin elkarlanean.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekintza jakinetan komunikazio ahalegin berezia egin: Batzar Nagusia, Bertso Eguna, txapelketak, argitalpenak, gogoeta estrategikoa...</li> <li>- Gogoeta estrategikoaren ondorioen berri emateko liburuxka bat eta bideoa bat garatu eta helarazi bazkideei.</li> <li>- Bazkide berriak erakartzeko komunikazio estrategiak diseinatu herrialde eta sailekin elkarlanean eta bitartekoak (irudiak, esku-orriak...) garatu.</li> </ul>	<p>igorri zaie, astero, Elkarteko kideei.</p> <p><b>Bazkideei zuzendurik:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- BertsoZalea berripaperaren 10 ale argitaratu dira, sail eta herrialdeekin elkarlanean eta erredaktore baten %10eko dedikazioarekin.</li> <li>- Ekintza jakinetan komunikaziorako ahalegin berezia egin da: Batzar Nagusia, gogoeta estrategikoa...</li> <li>- Bazkide berriak erakartzeko komunikazio estrategiak diseinatu eta inplementatu dira: Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan, Durangoko Azokan...</li> <li>- Bazkidetza, 2019ko abenduaren 31n: 2540</li> <li>- (2018an: 2502, 2017an: 2482, 2016an: 2343)</li> <li>- Gogoetaren ondorioen eta elkartearen jardueraren sozializaziorako euskarriak diseinatu dira eta lanketa fasean daude.</li> </ul>
<p><b>Kanpo komunikazioa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hedabideekiko harreman iraunkorra landu.</li> <li>- Hartzaile multzo honi egokitutako mezu eta erremintak garatu.</li> <li>- Elkarreak antolatutako ekintzak gizarteratzeko ahalegin berezia egin.</li> <li>- Harreman publikoak zaindu eta koordinatu. Bozeramaleak prestatu.</li> <li>- Publizitatearen jarraipena egin</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hedabideek elkartearen proiektuari eskaintzen dioten arretaren jarraipena egin eta eragin.</li> <li>- Hedabideei elkartearen egitasmoei buruzko albisteak eta bertsolaritzan albiste diren gaiet buruzko informazioa zein bertso saioen agenda helarazi asteroko maiztasunez.</li> <li>- Sailekin eta herrialdeetako elkarrekin elkarlanean aritu egitasmoen komunikazioan aholkularitza eskainiz</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hedabideek elkartearen proiektuari eskaintzen dioten arretaren jarraipena egin eta eragin da.</li> <li>- Hedabideei elkartearen egitasmoei buruzko albisteak eta bertsolaritzan albiste diren gaiet buruzko informazioa zein bertso saioen agenda helarazi zaie asteroko maiztasunez.</li> <li>- Sailekin eta herrialdeetako elkarrekin elkarlanean aritu gara egitasmoen komunikazioan aholkularitza eskainiz</li> </ul>

	<p>eta komunikazio lanak bideratuz:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>o Gogoeta estrategikoa</li> <li>o Bertso Eguna</li> <li>o Batzar Nagusia</li> <li>o Eskolartekoa</li> <li>o Bertso Udalekuak</li> <li>o EHUko ikastaroak</li> <li>o Ahots Baten</li> <li>o Durangoko Azoka</li> <li>o Hitzetik Hortzera</li> <li>o Bertsoa.eus</li> <li>o Kulturartekoa. Kongresuak, topaketak.</li> <li>o Lanku. Argitalpenak eta ekoizpenak</li> <li>o Bapatean2018</li> <li>o Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak</li> <li>o Bertsolamintza</li> <li>o Mintzolako mintegia</li> <li>o Ikerketa kontratu eta proiektu sariak</li> <li>o Nafarroako Txapelketa 2019</li> <li>o Arabako Txapelketa 2019</li> <li>o Gipuzkoa Bertsotan 2019</li> <li>o Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 2019</li> <li>o Xilaba 2019</li> <li>o Bizkaiko Taldekako Txapelketa 2019</li> <li>o ...</li> </ul> <p>- Hedabideekin hitzarmenak: Hedapen Sailarekin elkarlanean hedabideekin</p>	<p>eta komunikazio lanak bideratuz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazio planak diseinatu eta garatu dira:</li> <li>- Gogoeta estategikoa, Parte-hartze prozesua, Bertso Eguna, Batzar Nagusia, Eskolartekoa, Bertso Udalekuak, EHUko ikastaroak, Ahots Baten, Durangoko Azoka, Hitzetik Hortzera, Bertsoa.eus, Lanku (argitalpenak eta ekoizpenak), Bapatean2018, Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak, Bertsolamintza, Mintzolako mintegia, Ikerketa kontratu eta proiektu sariak, Nafarroako Txapelketa 2019, Arabako Txapelketa 2019, Gipuzkoa Bertsotan 2019, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 2019, Taldekako Xilaba 2019, Bizkaiko Taldekakoa 2019</li> <li>- Hedabideekin hitzarmenak: Hedapen Sailarekin elkarlanean hedabideekin dauden lankidetzen jarraipena egin da.</li> <li>- Hedapen Sailarekin elkarlanean hedapen sarearen diseinuan parte hartu eta hedabideen jarraipena egin da: Hitzetik Hortzera, Bertsoa.eus, txapelketak...</li> <li>- Publizitate akordietan adostutakoa exekutatu da.</li> <li>- Durangoko Azokan elkarleak izan behar duen presentzia aztertu, Xenpelar Dokumentazio Zentroaren</li> </ul>
--	---	--

	<p>(prentsa idatzia, aldizkariak, irratiak, telebistak, webguneak...) lankidetzak berriak eragin, garatu, lotu. Sinatu duten hedabideei jarraipena egin hartutako konpromisoak betetzen dituztela ziurtatuz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hedapen Sailarekin elkarlanean, elkartearen hedapen sarearen diseinuan parte hartu eta hedabideen jarraipena egin: Hitzetik Hartzera, bertsoa.eus...</li> <li>- Koordinatzailearekin eta Sustapen Sailarekin elkarlanean publizitate akordioetan adostutakoa exekutatu.</li> <li>- Durangoko Azokan elkarrekin izan behar duen presentzia aztertu eta Lankuko zuzendariarekin batera stand-aren ardura hartu. Gainontzeko azokatakoa ere, lurraldeekin eta Lankurekin elkarlanean.</li> </ul>	<p>mahai inguru bat antolatu eta Lankurekin batera stand-aren ardura hartu da.</p>
--	---	--

<b>KOMUNIKAZIO ERREMINTEN KUDEAKETA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
<b>Komunikaziorako erremintak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazio erreminta guztien plan estrategikoa etengabe berrikusi eta garatu:</li> <li>- Sarean ditugun atari eta sare sozial guztien osotasuneko ikuspegia izan eta hobekuntzak proposatu eta gauzatu. 2019an editore taldearen batzordea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikaziorako erreminta guztien plan estrategikoa etengabe berrikusi eta garatzen da: <ul style="list-style-type: none"> <li>o Sareko atari eta sare sozial guztien osotasuneko ikuspegia izan eta hobekuntzak proposatu eta gauzatu dira. Ezinezkoa izan</li> </ul> </li> </ul>

	<p>elkartzen hasi, estilo liburua lantzen hasi eta begiratu osoa izateko. Talde lana eragin.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsozalea berripapera 2020tik aurrera bazkide guztiei digitala bidaltzeko estrategia definitu, diseinua eta edukia berrikusi.</li> <li>- Bertsoa.eus-en, publizitatea landu.</li> <li>- Bertsosarrerak.eus-en publizitatea landu. Bannerrak egokitu.</li> <li>- Bdb.bertsozale.eus: eduki estatikoak berrikusi</li> <li>- Bertsozale.eus. mugikorretarako txukundu. Argazki handiagoak..</li> <li>- Bertsoikaskgela.eus: komunikatiboki jarraipena egin</li> <li>- Bertsoeskola.eus atari berriaren garapenean lana egin. Diseinuaz arduratu. Komunikazioari lotutako estrategiaz hausnartu</li> <li>- Sare sozialen berrikusketa: YouTube, Instagram, Twitter eta Facebook-en lanean jarraitu eta LinkedIn-en sektoreari buruzko albisteak publikatzen hasi.</li> <li>- Kanpo komunikazioan erabili diren erremintak</li> </ul>	<p>da editore taldearen batzordea aktibatzea eta estilo liburua lantzen hastea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>o Bertsozalea berripapera 2020ko apiriletik aurrera bazkideei digitalki soilik bidaltzeko estrategia adostu da. Diseinua eta edukia ez da berrikusi. Gaur egun 1.112 bazkideri bidaltzen zaie digitalki.</li> <li>o Bertsoa.eus eta Bertsosarrerak.eus-en publizitatea sartu da.</li> <li>o Bertsozale.eus-en hainbat hobekuntza egin dira.</li> <li>o Bertsoeskola.eus atari berriaren garapenean parte hartu da: komunikazioari lotutako estrategia landu eta diseinu estetikoa landu da.</li> <li>o LinkedIn-en sektoreko albisteak publikatzen hasi gara eta gainontzeko sare sozialetan (YouTube, Instagram, Twitter, eta Facebook-en etengabeko jarioa izan dugu).</li> </ul> <p>- Internet atariak: Epea: 2019-01-01 / 2020-01-01 Erabiltzaileak   Sesioak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>o Bertsozale.eus: 98.186   234.397</li> <li>o Bertsoa.eus: 122.715   409.721</li> <li>o Mintzola.eus: 11.796   15.903</li> <li>o bdb.bertsozale.eus: 120.946  </li> </ul>
--	--	---

		<p>208.686</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>o bertsokasgela.eus: 37.829   74.618</li> <li>o bertsoeskola.eus: 2.465   5.646 (2019ko urriaren 1etik dago martxan)</li> </ul> <p>- Atariez gain sare sozialen bitartez ere garatu da kanpo komunikazioa. Sare sozialak, datutan (jarraitzaile kopuruak):</p> <p>FACEBOOK (atsegin dut/lagunak):  Bertsozale – 7.168   Mintzola – 485   Bertsoa.eus – 3.209   Hitzetik Hortzera – 4.724   Arabako BE – 2.440   Bertsularien Lagunak – 2.487   Bizkaiko BE – 1.169   Gipuzkoako BE – 2.714 (orr.) + 3.156 (prof.)   Nafarroako BE – 4.447   Lanku – 1.042</p> <p>TWITTER (jarraitzaile):  Bertsozale – 5.580   Mintzola – 995   Bertsoa.eus – 4.935   Hitzetik Hortzera 268   Arabako BE – 918   Bertsularien Lagunak – 499   Bizkaiko BE – 1.508   Gipuzkoako BE – 1.575   Nafarroako BE – 1.207   Lanku – 1.036</p> <p>YOUTUBE (harpidedunak + ikustaldiak):  Bertsozale – 222 + 76.030   Mintzola – 630 + 230.419   Bertsoa – 4.400 + 2.106.131   Arabako BE – 47 + 46.219   Bertsularien Lagunak – 86 + 131.855</p> <p>INSTAGRAM (jarraitzaileak):</p>
--	--	--



		Bertsozale – 1.886   Bizkaiko BE – 652   Gipuzkoako BE – 828   Bertsularien Lagunak
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
Zuzendaritza	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritza eta sailen funtzionamendua bermatu:</li> <li>- bilkuren maiztasuna bermatu.</li> <li>- Zuzendaritza kideen informazio bermatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritza eta sailen funtzionamendua bermatu:</li> <li>- bilkuren maiztasuna bermatu.</li> <li>- Zuzendaritza kideen informazio bermatu.</li> </ul>
Eguneroko administrazio zereginak bete. Elkartearen sostengarritasun ekonomikoa aztertu eta aterabideak landu. Erakunde (EEP, Hirigune Elkargoa, EKE, Kontseilu Orokorra eta herriko-etxeak) hitzarmenak landu. Langileen kontratuak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Usaiako administrazio zereginak bete.</li> <li>- Aitzinkondua kudeatu: Gure eremuan eraman behar den kontabilitatea segurtatu, EHBE baitan kontuak eraman.</li> <li>- Finantza lan-taldea sortu: aitzin ikusi 27000€ko ziloa kudeatu eta epe luzearako aterabideak aztertu.</li> <li>- Dauden diru iturriak segurtatu eta berriak atxeman.</li> <li>- Urteroko diru laguntzez gain epe luzeagorako hitzarmena erdietsi.</li> <li>- Langileen kontratuak Bertsularien Lagunak elkartera pasatzeko abiatutako bideari jarraipena eman.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Usaiako administrazio zereginak bete.</li> <li>- Aitzinkondua kudeatu: Gure eremuan eraman behar den kontabilitatea segurtatu, EHBE baitan kontuak eraman.</li> <li>- Dauden diru iturriak segurtatu eta berriak atxeman.</li> <li>- Urteroko diru laguntzak kudeatu.</li> <li>- Langileen kontratuak Bertsularien Lagunak elkartera pasatzeko lana abiatu. Aitzinkontuak prestatu eta kostuak aztertu.</li> </ul>

<b>KOMUNIKAZIOA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
Barne komunikazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bazkide eta bertsu eskolako gurasoekiko harremana landu:</li> <li>- Bertsozalean parte hartu.</li> <li>- EHBE elkarteko barne komunikazioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bazkide eta bertsu-eskolako gurasoekiko harremana lantzen hasia gara.</li> <li>- Bertsozalean parte hartu dugu.</li> </ul>

	baliatu: barne orria, web orria.	- EHBE elkarteko barne komunikazioa baliatu ditugu: barne orria, web orria.
Kanpo komunikazioa	- Elkarteko jardunaren berri eman: - transmisio ekintza osagarriak. - hedapen ekintzak: Haizea Dator, Hernandorena, XILABA Xapelketa. - Punttuka irratia saioa astero.	- Elkarteko jardunaren berri eman dugu: - transmisio ekintza osagarriak. - hedapen ekintzak: Taldekako XILABA, Haizea Dator. - Punttuka irratia saioa astero.

<b>TRANSMISIOA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2019-2020ko ikasturteari begira: Dauden bertsu eskolak indartuz, mantendu. Eta bertsu eskola berriak sortu nahi ditugu. Era berean lehenago aipatutako herri bertsu eskolei segida bat eman nahi diegu. Herri bertsu eskolen sarea zabaldu eta egonkortzeko.</li> <li>- Ikasturte honetan izan diren aldaketen harira, egokitzapenak egin behar izan dira plangintzetan bertsu eskolen eskaerari modu egoki batean erantzun ahal izateko. Aktibitateak desagertu dira baina asteazkenak libre geratu dira bertsu eskola gehiago eman ahal izateko. Ikastolen ordutegiari jarraiki, oren bat galdu dugu bertsu eskolak egiteko ikastolaren ondotik. Oren eskasi horri aurre egin ahal izateko asteazkenetan</li> </ul>	<p><b>Orain arteko bertso eskoletako taldeei erantzun eta berriak sortu.</b>  <b>2019-2020:</b> Haurren Bertsu Eskolak 21 herrietan, 29 talde eta 195 ikasle. Orokorki, ikasturtean 1184 oren emanen dira bertsu eskoletan.</p> <p><b>Bertso-eskolen dinamika laguntzeko ekintza osagarriak antolatzea:</b>  <b>Xapelgoa (Eskolartekoa)</b>  Kanporaketak, Baigorri apirilaren 20-23 eta Finala, maiatzaren 30ean Itsasun.</p> <p><b>Bertsu topaketak</b>  -Apirilaren 20-21ean eta 22-23an haurren topaketak (100 haur inguru espero dira orotara).  -Apirilaren 28, 29 eta 30ean gazteen topaketak, Lesakan (60 gazte inguru espero dira).</p> <p><b>Bertsu-eskolen besta:</b> maiatzaren 30ean</p>	<p><b>Orain arteko bertso eskoletako taldeei erantzun eta berriak sortu.</b>  <b>2018-2019:</b> Haurren Bertsu Eskolak 18 herrietan, 33 talde eta 264 ikasle Orokorki, ikasturtean 1297,5 oren emanen dira bertsu eskoletan.</p> <p><b>Bertso-eskolen dinamika laguntzeko ekintza osagarriak antolatzea:</b>  <b>Xapelgoa (Eskolartekoa)</b>  Kanporaketak, Baigorri apirilean eta Finala, maiatzaren 18an Hazparnen.</p> <p><b>Bertsu topaketak</b>  -Apirilaren haurren topaketak 2 Baigorri (160 haur).  -Apirilaren gazteen topaketak Orion, (54 gazte).</p> <p><b>Bertsu-eskolen besta:</b> maiatzaren 18an Hazparnen (200 haur).</p> <p><b>Haizea Dator</b></p>

<p>bertsu eskola gehiago ireki dira eta erantzun ahal izan zaie bertsu eskolen eskaerei.</p>	<p>Itsasun. <b>Haizea Dator</b> Urtarrilak 10, Itsasu (Goxoki gaztetxean). Otsailak 6, Baiona (Kalostrape ostatuan). Martxoak 13, Azkaine (Xoko Ona ostatuan). Apirilak 3, Urruña (Bertoli elkartearen). Maiatzak 15, Baigorri (Basaizea elkartearen).</p>	<p>2019. urtean 3 saio ospatu dira: urriaren 4ean Muskildin lehena, azaroak 8, Senperen (Larraldea baserrian), eta abenduak 6an Hendaian (Gaztetxean). Biziki saio politak eskaini zizkieten bertaratutakoei eta denek biziki baikorki baloratu zituzten ekimenak.</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastolak bertsu eskolen iturri eta aska direla erran gabe doa.</li> <li>- Horregatik, gure elkarteko 4 erakasleak ibiliko dira aurten ere Seaskako ikastoletan, 3. zikloko haur guzietan Bertsularitzaren inguruko erakaskuntza emanez.</li> <li>- Hortaz gain, ezinbertzekoa da ere haur horiek bertsuzaletasunari gustu hartzeko eta beraz eskola jarduna emankorragoa izateko. Bertsu eskoletarako proiektioa edo zubia ukaitea eta bertsu eskolekin lotura duten bertsu ekimenetan parte hartzea.</li> <li>- Honenbestez, Seaskako eta bertsu eskoletako eremuak ongi definiturik, eta bata besteaz elikatzen dela oharturik, Seaska ikastolen federakundearekin harreman emankorra ezinbestekoa da.</li> </ul>	<p>Seaskan ematen den bertsu erakaskuntza jarraitu. Ikastolen Konfederazioarekin urteroko hitzarmena sinatu. Ekintza osagarriak antolatu (bertsulariak ikastoletarat, bertsulari ttipi eguna...). Ikastoletatik bertsu eskolarateko zubi lana egiten jarraitu.</p> <p><b>2019-2020:</b> 61 ikastoletan. 950 haur.</p> <p><b>Bertsulari Ttiki Egunak</b> Bi (bat goizean eta bestea bazkal ondoren) maiatzaren 12an Senperen, bat maiatzaren 14ean Larresoron eta beste bat Larzabalen maiatzaren 15ean</p> <p><b>Bertsulariak eskoletarat</b> Urtero egiten den gisan, BERTSULARIEN LAGUNAK eta Seaskak elkarlanean «Bertsulariak Ikastoletarat» ekimena antolatzen dugu. Ikastola bakoitzak duen azken bertsularitza kurtsoan burutu ohi da ekimen hau. Bertsu eskoletan ari diren gazteek parte hartzen dute bertsu saioan eta Ikastolako haurrak dira ikusleak.</p>	<p>Seaskan ematen den bertsu erakaskuntza jarraitu da. Ikastolen Konfederazioarekin urteroko hitzarmena sinatu da. Ekintza osagarriak antolatu dira (bertsulariak ikastoletarat, bertsulari ttipi eguna...).</p> <p>Ikastoletatik bertsu eskolarateko zubi lana egin da.</p> <p><b>2019-2020:</b> 60 ikastoletan. 930 haur.</p> <p><b>Bertsulari Ttiki Egunak</b> Aitzineko urteetan izandako haur kopurua kontuan harturik, lau Bertsulari Ttiki ospatu ziren 2019. ikasturtean. Maiatzaren 14an Larzabalen goizetik lehena, bigarrena maiatzaren 16an goizetik Larresoron, hirugarrena maiatzaren 17an goizetik Hendaian, eta azkena maiatzaren 27an goizetik baita ere Hendaian.</p> <p><b>Bertsulariak eskoletarat</b> Urtero egiten den gisan, BERTSULARIEN LAGUNAK eta Seaskak elkarlanean «Bertsulariak Ikastoletarat» ekimena antolatzen dugu. Ikastola bakoitzak duen azken bertsularitza kurtsoan burutu ohi da ekimen hau. Bertsu eskoletan ari diren</p>

		gazteek parte hartzen dute bertsu saioan eta Ikastolako haurak dira ikusleak.
Adar Elebidunetako jarduna. Badira urte batzuk BERTSULARIEN LAGUNAK elkarteak adar elebidunetik egin galdeari ihardesten diola. Jadanik galdetua den ikastetxeetan bertsularitzarat eta bertsuzaletze helburua duten ikastaroak emanen dira. Ikastaro hauek bertsu eskolako erakasleak eskainiko ditu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Orotarat, 47 bat eskola eta kolegio elebidunetan, haur eta gazteek ukanen dute bertsularitzari buruzko ikastaroa.</li> <li>- 2020. urtean Bertsolari Bat klasean proiektuan, ikastaroetan zehar ikasleek prestatutako bertsuekin eta bertso saio batekin, maiatzean bi Besta eginen dira Donibane Lohizunen.</li> <li>- HHerri Elkargoan izandako aldaketek baldintzaturik proiektu osoaren kudeaketa eta besta desberdinen antolaketa Bertsularien Lagunak Elkartearen esku izanen da hemendik goiti. Proiektuak Elkartearentzat duen garrantzia ikusirik lan zama hori guregain hartzeko prestutasuna erakutsi dugu 2019-2020 ikasturtetik goiti proiektuak orain arte bezala segitu dezan. Lan zama hori transmisio eragileak bere gain hartuko du</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Orotarat, 38 eskola eta kolegio elebidunetan, haur eta gazteek ukanen dute bertsularitzari buruzko ikastaroa.</li> <li>- Dona Maria Ikastetxeko proiektua besta batekin bukatzen da. Besta horretan, proiektuan parte hartu duten haur eta gazteek, prestatutako bertsu sortekin eta bertsu saio batekin burutzen da. Ekainean iragan zen Dona Mariako besta eta Amets Arzallus, Odei Barroso eta Oskar Estangarekin batera burutu ziren saioak.</li> </ul>
Bertsu eskoletako erakasleen jarraipena egin.	Erakasleen prestakuntza, formakuntza, jarraipena egin.	Irailatik aitzin Transmisioko eragilearen gidapean, erakasleen prestakuntzan eta formakuntzan antolatzen hasi gira.

<b>SUSTAPENA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>

<p>Bertsularitzaren eta Bertsu saioen sustapena.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2020an ere, elkarteak bertsu saioen sustatze lana hiru moldetan egingen du: bertze elkarteek antolatu saioak diruz lagunduz, sustatzaile izanez, edota antolatzaile nagusi izanez.</li> <li>- 2020an ere, EK Eren ekarpen ekonomikoari esker, antolatzaile andana diruz laguntzen ahalko dugu. Oraindik aitzina, diru laguntza eskaera egiteko webgunetik pasa beharko da, hartan atzematen baitira ere galdea egiteko formularioa eta abar.</li> <li>- 2020 urte honetan oraindik esperimentalak den lanketa bat eramaten ari gara Kanalduderekin batera, honek emankizun berri bat plantan jarri baitu eta erregulariki bertsoari lekua ematen baitio.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Azken urteetan, Elkarteko eragile nagusiarekin batera borondatezko talde bat aritu izan da eginkizun hauetan eta, 2019ko apirilaz geroztik, Sustapeneko eragileak talde honen koordinazioa beregain hartu du. Taldea hilabeteetan behin biltzen da eta honen inplikazioa ezbaian ezartzeko arrazoirik ez izateaz gain taldekako XILABaren antolaketan inplikazio handia agertu du. Borondatezko talde sendoa da.</li> <li>- Talde motibatua eta eraginkorra da eta honi esker orain arteko ekitaldi guztiak baikorki baloratzeko moduan gara. Sustapeneko egitasmoak ardua eta zeregin handiak dituenaz, azpimarratzekoa da borondatezko talde honek erakusten duen engeiamendua, molde batez edo bestez sustapeneko ekimen guzietan parte hartzen du.</li> <li>- Aurtengo zenbakiei begira bertsularitzak azken urte hauetako dinamika hobetu duela erran dezakegu, 120 saioen hesia gaindituz (iaz baino 15 gehiago). Bertsu saio bereziek, Plazako saio arruntek eta lagun artekoek arrakasta ukaiten jarraitzen dute, nahiz eta 2019an jaialdi deitzen ditugun saio tradizionalagoek ere jende kopuru ederra bildu zuten. Bertsuak berak tira</li> </ul>
--	--	---

		<p>duela erran daiteke beraz. Taldekako XILABA Xapelketako saioek ere jende anitz erakarri dute. Herrialdez herrialde harturik, Lapurdin goraka egin da, Baxenabarren saio kopuruaren gorakada ttipiagoa nabari da, eta Xiberoan aldiz bere horretan mantendu da.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 2014az geroztik 25 bat antolatzaile laguntzen genituen urtero, aurten aldiz 31 izan dira. 2019an indar berezia egin genuen Baionako bestetako saioa eta baita Elkargoarekin batera Aitor Sarasua elkarteko lehendakari eta motorretariko bat izan zenaren omenaldiaren antolaketan laguntzeko. Bi kasuetan emaitza arrakastatsua izan zen. Izan ere Baionako saioan euriari buru eginez 100 lagun baino gehiago bildu baitzen eta Itsasun iragan zen Aitorren jaialdi omenaldian ere 100eko langa gainditu baikenuen. Gure egitekoetan izanki kontent izateko arrazoinak ditugu.</li> </ul>
Hernandorena Bertsu Sariketa.	<p>Eskolarteko ibilbidetik, plazako ibilbidera jauzia ematen ari diren 25 urte arteko gazteei, beren burua ezagutarazteko parada ematea da xedea.</p> <p>KANPORAKETAK:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Maulen, Zinkan, apirilaren 4an</li> <li>2. Baigorri, Bixentaenian, apirilaren 11n</li> <li>3. Kanbon, Gaztetxean, apirilaren 18an</li> </ol>	

	FINALA: Baionan, Zizpa gaztetxean, maiatzaren 2an.	
Helduen bertsu-eskolak segurtatzea.	Transmisio sailarekin batera indar berezi bat egiten ari gara azken urte hauetan Helduen Bertsu eskolak bultzatzeko. 2020an ere ahal dugun laguntza guzia eskainiko diegu talde ezberdinei, beren gogo eta erritmoan bertsutan aritu daitezzen.	
VI. XILABA Xapelketa.	2020an gure eremuko VI. XILABA Xapelketa ospatuko dugu, eta molde egoki batean gauzatzeko arlo ezberdinetan lanean hasiak gara jadanik. <ul style="list-style-type: none"> <li>- diru-iturriak</li> <li>- epaile, gai-emaile, gai-egile taldeak osatzeko</li> <li>- komunikaziorako</li> <li>- Partehartzaileen izenak bildu</li> <li>- Formatua</li> <li>- Lekuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2018ko Taldekako XILABAREN ondoren egindako bilanaren ondotik, 2019an berriro ospatzea erabaki zen.</li> <li>- Biziki ontsa iragan da hau ere. Parte hartzaileak motibatu dira eta bertsu eskoletan lan egiteko estakurua ere sortu du taldekakoak.</li> <li>- Bederatzi (9) talde izan ziren iragan udazkenean ospatu zen Bigarren Taldekako XILABA xapelketan izena eman zutenak. Orotara 48 bertsulari, gai emaile, epaile eta antolatzailek hartu zuten parte Xiberoa, Baxenabarre eta Lapurdin jokatu den xapelketa jendetsuan.</li> <li>- Orotara 12 saio ospatu ziren, 9 ligaxkako lehen fasean, 2 finalerdi eta Finala. Irailaren 20an hasi zen Itsasun eta azaroaren 16an bururatu zen Izturitzen. Talde guziek hartu dute parte antolakuntzan. Bai saioak antolatzen, epaitzen edo gaiak prestatzen.</li> </ul>
Adin Adin.	Duela bi urte Saran eman genuen lehen	

	<p>urrats xumeak bigarrena ere behar duela pentsatzen dugunez, aurten proiektua sendotu eta bigarren urratsarekin zaharretxetara iritsi nahi genuke berriz ere. Hala ere gisa horretako proiektu batek ekonomikoki eta jende aldetik inbertsio handia suposatzen du eta, hartara, Akitania mailan esleitzen den diru laguntza eskaera egin dugu eta arrapostuaren beha gara.</p>	
Hezkuntzarekin.	<p>Sustapena eta Hezkuntza saila elkarren ondokoak dira derrigor. 2020tik aitzina elkarlan estuagoa eraman beharko genuke, bai bertsulari gazte/berriek jende aitzinean lekua ukan dezaten eta baita sustapen lanaren berri ukanez bertsuaz harago inplikatzeko gogoia ukan dezaten.</p>	

<b>IKERKUNTZA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
<p>Bertsu saioen grabaketa eta bilketaren jarraipena egin.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2020an ikerkuntza sailak aitzineko urteetako proiektuei segida ematea du helburu.</li> <li>- Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak duen "plaza datu basea" baliatuko da Lapurdi, Baxenabarre eta Xiberoan antolatzen diren bertsu ekitaldiak artxibatzeke: horretarako antolatzen diren saioen grabaketa egiten jarraituko da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2019an ikerkuntza sailak aitzineko urteetako proiektuei segida eman dio</li> <li>- Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak duen "plaza datu basea" baliatu da Lapurdi, Baxenabarre eta Xiberoan antolatu diren bertsu ekitaldiak artxibatzeke: horretarako antolatu diren saioen grabaketa egiten jarraitu da.</li> </ul>



	<ul style="list-style-type: none"><li>- Xenpelarreko datu basea eguneratze lanetan jarraituko da.</li><li>- Azkenik, bertsuarekin zerikusia duen dokumentu oro bildu eta artxibatuko da.</li></ul>	
--	--	--

### 9.3. Bizkaiko Bertsozale Elkartearen

Urterako helburuak	Ebaluazioa
<p>Elkartearen misioa da bertsolaritzaren ekosistema osoa, eskualdez eskualde, etengabe zaintzeko, elikatze eta garatzeko bideak edota baliabideak eskaintzea eta egikaritzea, lekuan lekuko errealitateari erreparatuz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Horretarako, urtero egokitu eta garatuz doan egitasmoa gauzatuko da. Aurten, gainera, ohiko jarduera eta proiektuak gauzatzeaz gain, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa urtea izango da batetik, eta bestetik gazteen plazaratzea laguntzeko egitasmo berri bi ipiniko ditugu martxan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Helburuak bete dira, oso presente izan dira urte osoan zehar. Egokiak izan dira</li> <li>- Aurrekontua irabaziekin amaitu dugu eta pertsonala ajustatzeko aukera eman digu horrek aurrera begira zama arintzeko</li> <li>- Bertsogintzaren ekosistema aberasten jarraitu dugu, proiektua sendotzen ari da eta nabaria da beharra</li> <li>- Txapelketak eta sustapeneko gainerako proiektuek, bertsolariak motibatzea lortu du. Egoera baikorra da</li> <li>- Transmisioan lan handia egin da proiektua egokitzen eta errebisatzen, zubigintzan. Aurrera begira klabe berriak</li> <li>- Gazte belaunaldi konprometitu dago transmisioan eta proiektuaren eraikuntzan agente aktiboa dira</li> </ul>

IDAZKARITZA		
Helburuak	Ebaluazio adierazleak	Egindakoa
Zuzendaritza batzordearen osaketa berria egin. Zuzendaritzetan lantzeko edukiak eta prozedurak zehaztu	Zuzendaritza kide berriekin osatu (lurraldetasuna, belaunaldi artekotasuna, generoa, eta ezagutza kontutan hartuta) Zuzendaritzan gai estrategiakoak landu	-
Antolaketa eta funtzionamenduari buruzko partaidetza prozesuan parte hartu	EH mailan egingo den antolaketa eta funtzionamenduari buruzko partaidetza prozesuan parte: zuzendaritzak, lantaldeak, talde teknikoek.	-
Sostengagarritasun ekonomikoa lortu	Finantzazio bide berriak landu	-

	Aurrekontuen jarraipen zorrotza egin, negozio bide berriak aztertu eta tarifak errebisatu	
Langileen etengabeko formazioa bultzatu	Irakasleen mintegiak erabili barne formaziorako, etenbariko hobekuntza. Kanpo formaziorako aukerak eskaini	-
Feminismoa zehar lerro	Jarduera denetan feminismoa zehar lerro moduan txertatu Bizkaiko Bertso mugimenduko emakumeen topaketa sustatu	-

<b>TRANSMISIOA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
Eskaintzen ditugun zerbitzuen kalitatea hobetu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kudeaketan jarraipenerako prozedura egokiak diseinatu eta harremanak zaindu</li> <li>- Metodologiaren azterketarekin jarraitu, proposamen didaktikoa lantzen jarraitu</li> </ul>	
Ekintza osagarriak sustatu (aisialdia eta zubi-lana)	Ekintza osagarriak bultzatzen jarraitu <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso saioak ikastetxeetan</li> <li>- Kantaldiak</li> <li>- Ikastetxeen arteko topaketak</li> <li>- Bertso barnetegiak: negukoa eta udakoa</li> </ul>	
Eskualdeetako plangintzari jarraipena eman	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskualdeetara/bertso eskoletara hurreratu.</li> <li>- Urteko egitasmoa konpartitu eta osatu</li> <li>- Zubi lanean eragin</li> <li>- Bat-bateko taldeekin beharrian</li> </ul>	

	jarraitu (hezkuntza arautua eta bertso eskolaren arteko zubia)	
--	--	--

<b>SUSTAPENA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
Udabarria bertsotan eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketa egin	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Txapelketa formatu berriarekin gauzatu.</li> <li>- Txapelketaren beraren helburuak zaindu.</li> </ul>	
Gai-jartzaitza eta epaitza sustatu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Talde teknikoen osaketan lagundu</li> <li>- Talde bien arteko koordinazioa sustatu</li> <li>- Txapelketako kontestuan beharrezko azpiegitura eta babesa eskaini</li> </ul>	
Gazteen plazaratzea sustatu	<p>Gazteen plazaratzerako aukerak eskaini:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskolatik plazara</li> <li>- Eskolartekoa</li> <li>- BBK sariketa</li> <li>- Plazara! → BERRIA</li> <li>- Gazteen formazioan lagundu:</li> <li>- Sakontze Bertso Eskola, gazteentzako bertso eskola osagarria → BERRIA</li> </ul>	

<b>IKERKUNTZA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>

Bilketa lana sustatu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bilketa sustatu eta jasotakoa Xenpelarrera bideratu.</li> <li>- Gutxieneko grabazioak egon daitezen, biltzaile sarea motibatu.</li> <li>- Grabazioak jasotzearen garrantziaz jabetzeko informazioa eman</li> </ul>	
Haitzondo fitxak	Bereziki Txapelketari lotuta, Haitzondo fitxak sortu eta eguneratu	-

<b>KOMUNIKAZIOA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
Barne komunikazioa landu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritza eta lan-taldearen arteko etengabeko informazioa bideak sustatu</li> <li>- Bazkideekin izan beharreko komunikazio zaindu</li> <li>- Kanpo komunikazioa antolatu. Zer komunikatu, noiz komunikatu, nori komunikatu eta zelan komunikatu zehaztu</li> </ul>	

## 9.4.Gipuzkoako Bertsozale Elkartea

<b>IDAZKARITZA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
<b>Lan taldea egokitu</b> Proiektuaren beharrei erantzungo dieten aldaketak egin.		Irakasleen formaziorako beharrezko ziren mintegiak berreskuratu ditugu. Horretarako irakasle bakoitzak bi talde gutxiago hartu ditu.
<b>Zuzendaritzaren berrantolaketa</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Azken urteetan Zuzendaritzan irakasleen ordezkariak ez da egon eta 2019an figura hori berreskuratu dugu.</li> <li>- 2020rako lehendakariak eskatutako erreleboa dela eta zuzendaritza kide guztiekin banakako elkarrizketak egin eta zuzendaritza batzordearen analisi bat egin dugu udazkenean. Urte bukaeran ordea ondorioei erantzuteko astirik gabe ibili gara.</li> </ul>
<b>Dirulaguntzak/hitzarmenak/kontratazioak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hezkuntza Arautuko proiektuak hartu duen dimentsioa dela eta kontratazio lege berriarekin arazoak izan ditugu udal batzuetan. Gehienetan ordea eskolei diru laguntzak emanda konpondu dugu. Pasaian lehiaketa publikora aurkeztu behar izan genuen, beraz, lizitatzailerik perfilean alfa eman dugu.</li> <li>- Txapelketarako eskatutako diru laguntzak zurrizko arazo handiak</li> </ul>

		izan ditugu: sarreren eta gastuen arteko desoreka.
<b>Gogoeta</b>		Funtzionamenduaren partaidetza prozesuaren kodiseinuan parte hartu dugu.

<b>KOMUNIKAZIOA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
<b>Komunikazio kudeaketa</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kanpo komunikazioari begira webgunean gure ekimen denen berri eman dugu eta sare sozialen bidez hedatu dugu. Behar izan dugunetan Bertsozalea ere baliatu dugu.</li> <li>- Txapelketako komunikaziorako %20ko kontratazioa egin dugu irailetik abendura. Emaitza onak eman ditu.</li> <li>- Barne komunikazioa: kudeaketako informazio atala gehienetan bete arren beti ez da bete.</li> <li>- Zuzendaritza batzordeko bileretan informazioa ematen hasi ordez gai ordenaz gain informazio orria bidali dugu, idatziz jasoz eman beharreko informazioa.</li> </ul>
<b>Kanpo harremanak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Administrazioarekin eta Udalekin ohiko harremanak mantendu ditugu.</li> <li>- HUHEZI-rekin harremana egin dugu hezkuntzako berrikuntza prozesua dela eta. Irakasleen formazioan laguntza eskaini digute.</li> </ul>

<b>Internet</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ohiko webguneaz gain Txapelketako webgunea izan dugu martxan. Sare sozialei eguneroko jarraipena egin diegu.</li> </ul>
-----------------	--	--

<b>TRANSMISIOA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
<b>Bertso-eskolak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso eskolen batzordea jarri dugu martxan bertso eskoletako irakasleekin eta bi bilera egin ditugu: ikasturte bukaeran eta ikasturte hasieran.</li> <li>- Bertso eskolarako proposamen didaktikoa diseinatu dugu.</li> <li>- Ikasturte hasieran matrikulazioan lagundu diegu bertso eskolei.</li> <li>- Motibazioa saioak egin ditugu.</li> <li>- Hezkuntza arautuan ari diren ikasleei bertso eskolarako bidea erraztu diegu.</li> <li>- Bertso eskoletako gazteentzat egonaldia antolatu dugu Lasturren.</li> <li>- Eskolartekoa antolatu dugu bertso eskolekin elkarlanean: 24 parte hartzaile, 4 kanporaketa eta finala.</li> </ul>
<b>Hezkuntza Arautua</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- 3 mintegitan banatu ditugu irakasle guztiak, eta talde bakoitza bi astez behin elkartzen hasi gara gelan egiten duguna aztertu eta konpartitzeko.</li> <li>- Irakasleen formazioa: elkarrengandik ikasten ari gara mintegietan. Gelan egunerokoan sortzen diren zailtasunak eta formazio beharrak identifikatu</li> </ul>



		ditugu.
		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsotako ikas prozesua aztertu dugu.</li> <li>- Proiektuak dituen hutsuneak identifikatu ditugu eta horiei erantzuteko neurriak aztertzen hasi gara.</li> <li>- Ikastetxetatik datozen eskaera ezberdinei erantzun diegu nahiz eta gure antolakuntzan zailtasunak sortu: 5 saioko ikastaroak, 8 saiokoak...</li> <li>- Materialean gehienek paparetik digitalerako urratsa eman dute. Fakturazioan kontzeptuak aldatu beharra ikusi da, ez baitu ikasle bakoitzak bere liburua.</li> <li>- Mundu bat bertso materialaz gain irakasle lantaldeak udako lanaldia aprobetxatuz gelan erabiltzeko materiala osatu du: karta jokoak, mahai jolasak, txartelak...</li> </ul>

<b>SUSTAPENA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
<b>GBT2019</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa eta honen aurreko sailkapen fasea antolatu ditugu.</li> <li>- Gipuzkoa Bertsotan: 7 egunetan 14 saio, 96 bertsolarik hartu dute parte.</li> <li>- Gipuzkoako Txapelketa: guztira 16 saio antolatu ditugu, 3 fase eta finala.</li> </ul>

<b>Antolaketa:</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanaldi osoan aritu den lankide batek hartu du antolaketako arduraren zati handiena. Baina, bulegoko beste lankideoi ere egunerokoan izugarri eragin digu.</li> <li>- 5 lagunez osatutako talde antolatzaileak egin du antolakuntzaren jarraipena eta erabaki estrategikoak zuzendaritzan hartu dira.</li> <li>- Txapelketako ariketen nolakotasuna diseinatzeko talde antolatzailearen, gai jartzaileen eta epaileen arteko lankidetzak izan dugu.</li> </ul>
<b>Epailetza:</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- 20 epaileko taldea aritu da txapelketak iraun duen bitartean lanean, eta txapelketa bukatuta ere elkartu eta trebatzen jarraitzea erabaki dute.</li> <li>- Saiotako epaileen osaketan esku hartu dugu.</li> </ul>
<b>Gai-Jartzailetza:</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- 15 gai jartzaileko taldea aritu da lanean, horietatik asko berriak izan dira eta oso ondo egokitu dira taldera. Sailkapen fasea baliatu dugu berriei aukera emateko, eta horietatik batzuk txapelketako saioak ere aurkeztu dituzte.</li> <li>- Saiotako aurkezleen aukeraketan esku hartu dugu.</li> </ul>
<b>Komunikazioa:</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Webgunea.</li> <li>- Hedabideekin hitzarmenak.</li> <li>- Sare sozialak.</li> </ul>

<b>Bertsolarien plazaratzea</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsolari gazteekin jardunaldi irekiak egin ditugu eta hortik plazan aritu nahi duenarentzat formazio beharra da atera den ondorio nagusienetako bat.</li> <li>- Bertsolari gazteentzat bertso tailerraren proposamena landu dugu.</li> </ul>
<b>Sariketen koordinazioa</b>		18-25 urte bitarteko bertsolarien zerrendak bidali dizkiegu sariketen antolatzaileei (EH osokoak beste herrialdeetako eragileei eskatuta).

<b>IKERKUNTZA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
<b>Haitzondo datu basea osatzen jarraitu ahal izateko informazioa bildu.</b>		Sailkapen fasean eta Txapelketan parte hartu duten bertsolari, gai jartzaile, epaile eta idazkari guztien biografiak berri/sortu ditugu.
<b>Bertso-ekitaldien informazioa bildu</b>		Guk antolatutako saio guztien informazioa bildu dugu.
<b>Argazki bilketa</b>		Guk antolatutako ekimen denetan atera ditugu argazkiak eta Xenpelarrera eraman ditugu.
<b>Plazaz plazako bertso-ekitaldien grabazioen bilketa</b>		Guk antolatutako saio guztiak grabatu ditugu: audioa eta bideoa. Grabazioak Xenpelarrera eraman ditugu.

## 9.5.Nafarroako Bertsozale Elkartea

Urterako helburuak	Ebaluazioa
<p>Aldaketa handiko urtea izanda, egitasmoak, lan-taldea eta lan funtzionamendua egonkortzea.</p> <p>Instituzioekin harreman giro egokia mantendu eta horretan sakontzea.</p> <p>Diru laguntzen finantziakzioa egonkortea.</p> <p>Txapelketa urtea baliatzea, egitasmoari bultzada emateko, bai bertsoaritzaren sustapenean bai eta ekonomikoki ere.</p>	<p>Lan-taldean aldaketa urtea izan da, urteetan elkartean egondako bi eragileek haien zikloa bukatu dutelako. Zentzu horretan, transmisio eragiletzarako eta administrazio lanetarako kontratazio berri bat egin da, eta pausuak eman dira lan-taldea eta arduren banaketa zein kontratazioa egonkortu eta aurrera begirako dinamikan jartzeko.</p> <p>Instituzioekin harremanak oro har onean mantendu dira, baina nabaritu dira aldaketaren lehen zantzuak (Lizarrako kasua). Dena dela, interlokuzioa orokorrean ona da.</p> <p>Diru laguntza gehienek mantendu edo gora egin dute.</p> <p>Txapelketa gauzatu da, eta positiboa izan da: publikoak gora egin du, ekonomikoki diru sarrerak ekarri ditu, eta bertso maila goranzko joeran mantendu da. Beste aldean, genero arrakala agerian utzi du.</p> <p>Azken horren haritik, feminismo batzordea eratu da (aurreikusitako gabea), eta hasi da lehen pausu batzuk ematen: Nafarroako Bertso Munduko Emakumeen I.Topaketa, azaroan Lesakan.</p>

IDAZKARITZA		
Helburuak	Ebaluazio adierazleak	Egindakoa

Lan-taldea egonkortu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan bolumena bere gain egoki hartuko duen lan-taldea izatea</li> <li>- Errelebo egokiak bermatu.</li> <li>- Lan-taldearen barruko komunikazio fintzeko trena martxan jarri.</li> <li>- Elkartearen lan-bolumenaren araberako ardura banaketa zehaztea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontratazio bat eginda, transmisio eragiletza eta administrazio sailerako.</li> <li>- Denbora eskaini zaio lan-arduren erreleboari.</li> <li>- Koordinazio bileren egutegi eta planteamendu berri bat jarri da martxan, bi astean behin lan-taldea biltzeko.</li> <li>- Ardura banaketa eraginkorragoa izan dadin banaketa findu da, baina ez da erabat zehaztu.</li> </ul>
Instituzioekin harreman giro egokia mantendu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Interlokuzioa eta elkar ezagutza egokia izatea.</li> <li>- Ekarpem ekonomikoa mantentzea edo igotzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Azken urteetako joerari eutsiz, interlokuzioa ona da oro har; gure egitasmoa ezagutzen eta (gehienek) baloratzen dute.</li> <li>- Diru laguntza gehienak igo dira, eta gainerakoak mantendu dira.</li> </ul>

<b>KOMUNIKAZIOA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
Barne komunikazioa: lan-talde, borondatezko eta bazkideak informatuta mantendu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Batzar Orokorra</li> <li>- Bertsozale-n Nafarroako informazioa bermatu</li> <li>- Zuzendaritzarekin harreman jarraitua</li> <li>- Bazkideen email sarea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Urtarrilaren 26an egin da Batzar Orokorra</li> <li>- Bertsozale baliatu da Nafarroako egitasmoen berri emateko</li> <li>- Zuzendaritza batzarraz gain, whatsapp taldea aktibatu eta emaila ere aktibatu da gai batzuen kontraste eta jarraipenerako</li> <li>- Nafarroako bazkideen emailak antolatu eta helbide zerrenda osatu da, informazio jakin batzuk bidaltzeko</li> </ul>

<p>Kanpo komunikazioa: egitasmoen hedapena</p>	<p>Webgunea eta sare sozialak</p> <p>Prentsarekin etengabeko harremana</p> <p>Egitasmoen euskarri propioak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Etengabe eguneratu da <a href="http://www.bertsozale.eus-en">www.bertsozale.eus-en</a> Nafarroari dagokion atala, eta horrekin batera, Twitter eta Facebook sare sozialak ere baliatu dira. Bertsoa-eus plataforma ere baliatu da, gure egitasmoetako bideoak zabaltzeko.</li> <li>- Etengabeko informazio jariora egon da Nafarroako eta Euskal Herriko hedabideekiko, orokorra gehienetan, eta zehatza hainbat proiektu espezifikoen. Irratietan elkarrizketak egin dira, eta eskaerei erantzun zaie.</li> <li>- Diseinuan arreta jarri da, egitasmoen zabalkunderako irudi berriak eta erakargarriak sortzeko –bereziki, txapelketan-. Euskarri propioak kaleratu dira: kartelak, eskuorriak, bideoak...</li> </ul>
--	--	---

<b>SUSTAPENA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
<p>Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2019: Nafarroako bertsolaritza eta bertsolariak ikusarazi eta sustatu, bertsolari gazteen plazaratzea bultzatu, bertsolaritza kultur sorkuntza gisa Nafarroako lurraldean hedatu eta NBE-ren egitasmoa ezagutarazi</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsolarien parte hartzea</li> <li>- Txapelketaren hedadura mapa</li> <li>- Ikusle kopurua</li> <li>- Bertsogintza maila</li> <li>- Gazteen plazaratzea</li> <li>- NBEren proiektua ezagutarazteko baliatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 30 parte hartzaile izan dira (24 txapelketan, eta sei gehiago aurrekanporaketetan). Beraz, azken urteetako tamainari eutsi dio txapelketak.</li> <li>- Ahalegin berezia egin da Nafarroako eskualde eta eremu ezberdinak barnebiltzeko: Baztan/Bidasoa, Xareta, Erribera, Lizarraldea, Iruñerria,</li> </ul>

		<p>Sakana....</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikusle kopuruak gora egin du fase guztietan, eta bereziki finalean.</li> <li>- Bertsogintza mailak goranzko joerari eusten dio.</li> <li>- Gazteen plazaratzea modu esplizitoan agertu da txapelketan.</li> <li>- Txapelketako euskarriak eta prentsarekiko komunikazioa baliatu dira txapelketaz gain elkarteak dituen beste egitasmoak ikusazteko.</li> </ul>
<p>Bardoak 2020: Nafarroako Bertso Eskolen Sarea aktibatu, taldeen kohesioan eta elkar harremanean sakondu, bertsolari gazte eta hasiberrien plazaratzea erraztu. Egitasmoa Nafarroako lurraldean barreiatu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bardoetako izen-ematea</li> <li>- Taldeen parte hartzea egitasmoaren antolaketan.</li> <li>- Egitasmoaren hedaduraren mapa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 13 taldek eman dute izena (aurreko edizioan 16 ziren). Talde beteranoenek nekea azaltzen dute, baina gazte eta hasiberriek gogoz hartzen dute parte, beraz balio du haien plazaratzerako tresna gisara.</li> <li>- Talde antolatzailea osatu da, baina parte hartzea eskasa da. Taldeek bere gain hartu dituzte etxeko saioaren antolaketa, baina kostatzen da inplikatzeko.</li> <li>- Egitasmoa parte hartzaileen herriez gain beste eskualde batzuetara ere eramateko apustua egin da, finalaurrekoen sistema aldatuz. Hala, beste presentziarik izango ez lukeen sei herritarako antolatu dira saioak.</li> </ul>
<p>Bertsoaroa 2019: Bertsolaritzaren kalitatezko eskaintza bermatzea Iruñean, bertsolaritzaren aniztasuna ikusarazi eta Nafarroako bertsolariak/gazteak promozionatu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kalitatezko eskaintza, punta-puntako bertsolariekin.</li> <li>- Eskaintza anitz eta osatua, publiko segmentu ezberdinei begira, eta bertsolaritzaren alderdi ezberdinak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erreferentziazko bertsolariekin osatutako saioak programatu dira, punta-puntako bertsolaritzaren lagina Iruñea ekarriz.</li> <li>- Bertso jaialdi ohikoez gain, bertso</li> </ul>

	<p>kontuan hartuko dituen.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Nafarroako bertsolarien eta gazteen presentzia ziurtatu.</li> </ul>	<p>musikatuak, bertsoa eta flamenkoa, bertsoa eta literatura eta haur emanaldiak programatu dira, bertsolaritzaren aniztasuna ikusaraziz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Emanaldi gehienetan bermatu da bertsolari nafarren eta gazteen presentzia.</li> </ul>
<p>Bertsokabi 2019: Bertsolari gazteen plazaratzea sustatu, bertsozale gazteei formatu erakargarria eskaini.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertsolari gazteen motibazio eta ahalaren neurrirako txapelketa eskaini</li> <li>- Bertsozale gazteei begirako formatua eskaintzea, haien eremu ohikoetara egokitua.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 16 eta 30 urte arteko 18 bertsolari gaztek hartu dute parte bikoteka, Nafarroako bertsolari gazteen multzoan lagin nabarmena.</li> <li>- Iruñeko taberna eta gune informaletan antolatu dira saioak, eta publikoak ongi erantzun du. Publikoaren artean, nabarmenki gazteak izan dira.</li> </ul>
<p>Epaile eta gai-jartzaile taldeei jaarraipena egin eta baliabideak eskaini.</p>	<p>Taldeak indartu eta egonkortzeko apustuak egin, jende berria erakarri. Formakuntza jarraitua eskaini.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai-jartzaile taldeari ez zaio arreta berezirik eskaini.</li> <li>- Epaile taldeak formakuntza jarraitua jaso du, kasu honetan Euskal Herritik bultzatua.</li> </ul>
<p>Bertso saioen antolaketa sustatu</p>	<p>Elkartetik lagundu eta bitartekaritza lanak egin saioen antolaketarako</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarteak erantzuna eman die hainbat eskariei, batzuk Lankura bideratuz eta besteetan bitartekaritza lana bere gain hartuz.</li> </ul>

<b>IKERKUNTZA</b>		
<b>Helburuak</b>	<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<b>Egindakoa</b>
<p>Bertsolaritzak Nafarroan uzten duen ondarea jaso eta gorde.</p>	<p>Bertso saioetako argazki, audio eta bideoak jaso eta dokumentatzea.</p>	<p>Egitasmo propioetan (NBek antolatutakoetan) izandakoa jaso eta XDZ-ra bideratu da (argazkiak, audioa eta</p>



		bideoak, batez ere).
2018ko Kultur Intereseke Ondasun izendapenari aplikazioak bilatu	Nafarroako Gobernuaren izendapenari jarraipena emango dion aplikaziorik bilatu: argitalpenen bat, jardunaldiak...	Ez da halakorik egin.